

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA

Kanpamentu, udaleku, martxa ibiltari eta auzolandegietarako 2026 udako deialdia

Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 28ko 57/2021 Foru Dekretuaren bidez onetsi ziren Gazteriaren Foru Erakundeak norgehiagoka bidez ematen dituen dirulaguntzen oinarri orokor arautzaileak (2022ko urtarrilaren 5eko ALHAO, 2. zk.).

Gazteriaren Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak 2026ko irailaren 7ko bileran onetsi zuen kanpamentu, udaleku, martxa ibiltari eta auzolandegietarako deialdi hau, zeina aipatutako oinarri orokorren eta hurrengo ataletan ezarritakoaren mende egongo den.

1. Deialdiaren xedea

Deialdiaren helburua dirulaguntzak norgehiagoka bidez ematea da, Arabako haur eta gazteek parte hartzen duten udalekuak, kanpamentuak, martxa ibiltariak eta auzolandegiak antolatzen laguntzeko.

Aire zabaleko jarduerak dira, ingurune naturalean edo espazio irekietan egiten direnak, aisialdiko hezkuntzaren kontzeptuaren barruan. Aisialdiko hezkuntzak pertsonak prestatu behar ditu, beren askatasun denbora modu positiboan nola erabili jakin dezaten. Aisia pribilegiozko espazioa da gizakia eta kultura berez berreskuratzeke, festaren, jolasaren, ikuskizunaren eta abarren bidez. Beraz, aisialdiko hezkuntza prozesu integral bat izango da, aisialdian pertsonaren heldutasunerako hazkundera ahalbidetuko duena, bere buruarekin berriro bat egiteko eta bizi den ingurumenean sakonago errotzeko, elkarbizitzaren ondorioz sortzen diren balioak indartuz edo aurkituz: berdintasuna, elkartasuna, tolerantzia, sormena, etab.

Begirale taldeak ezinbestekoak dira jarduera horiek behar bezala gauzatzeko beharrezkoa den lana egiteko.

2. Elkarte edota entitate onuradunak

Onuradunak irabazteko xederik gabeko gazte elkarteak, astialdiko elkarteak eta halakoak koordinatzen dituzten federazioak izango dira, baldin eta egoitza soziala edo ordezkaritza iraunkorra Araban edo Trebiñuko enklabeen badute. Jarduera Euskal Autonomia Erkidegoko enklaberen batean egiten bada, erakundeak Aisialdi hezigarriko eta astialdiko jardueri buruzko ekainaren 30eko 112/2026 Dekretuak eskatutako jardueraren erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar du.

Kanpoan geratuko dira aurreko deialdian zehapena jaso duten erakundeak, bai eta 57/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan zerrendatutako baldintzak betetzen ez dituzten erakundeak ere.

3. Diruz lagundu daitezkeen programak eta gastuak

3.1. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

Diruz lagundu ahal izango dira honako baldintza hauek betetzen dituzten aisialdiko jarduerak:

1. Udalekuak, kanpamentuak, martxa ibiltariak eta auzolandegiak antolatzea eta abian jartzea.

Jarduera horiek gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren alde egin beharko dute, balioen aldaketa sustatuz eta sexuaren araberako rol sozialak eta estereotipoak ezabatuz.

2. Jardueraren gutxienerako iraupena segidako 3 gau izango da, edo 4 egun udaleku irekietan, eta kasu guztietan, auzolandegietan izan ezik, gutxienez 10 parte hartzaile izan beharko dira, begiraleak kontuan izan gabe.

3. Parte hartzaileek gutxienez 7 urte izan beharko dituzte, eta gehienez 18 urte, begiraleek izan ezik.

4. Jarduerak udan eta ordutegi akademikotik kanpo egin beharko dira.

5. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, jarduerak 112/2026 Dekretuari egokitu beharko zaizkio (EHAA, 138. zk., ekainaren 30ekoa). Dekretu horren bidez, neska-mutikoen eta gazteen kanpamentuen, udaleku irekien, lan kanpaketen eta ibilaldietako kanpaketen araubidea arautzen da.

6. Dirulaguntzaren ondorioetarako:

Kanpaldia: aire zabaleko ostatu-jarduera bat da, kanpin-dendetan edo ostatu hartzeko beste bitarteko mugikor batzuetan egiten dena, jarduera horretarako azpiegitura finkoa edo iraunkorra duten lursailetan instalatua izan zein ez.

Kanpaldi ibiltaria: ibilaldietako kanpaldia edo ibilaldia: kanpaldia ibiltaritzat hartzen da baldin eta haren helburua ibilbide jakin bat betetzea bada eta zeharkaldiak ondoz ondoko hiru egun baino gehiago irauten badu, alde batera utzita ibilbide osoa Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan bakarrik egiten den.

Auzolandegia: jarduera honen helburua da hainbat tokitako gazteek beren borondatez parte hartzea gizarte-proiektu batean denbora jakin batez. Bizikidetzatza, talde-lana eta kultura-trukea sustatzen ditu.

Udalekuak: jarduera hauetan eraikin edo instalazio finkoetan hartzen da ostatu, hala nola aterpetxeetan, egoitzetan, udaleku-etxeetan, parrokia-etxeetan, baserri-eskoletan, aterpeetan edo antzekoetan.

Udaleku irekiak: Ikastetxeetan edo beste hiri-instalazio batzuetan egiten diren oporraldietako jarduera-programa, gaua bertan igaro gabe, egunean zehar, etenik gabe eta gutxienez 5 orduz egiten diren jarduerak.

7. Elkarrekin bakoitzeko gehienez sei txanda lagunduko dira diruz.

3.2. Diruz lagundu ezin diren jarduerak.

Dirulaguntza emateko ebazpenean bestelakorik adierazten ez bada, ez dira diruz lagunduko honako gastu eta jarduera hauek:

1. Aisialdiko hezkuntzakoak ez diren esparruetan egindako jarduerak, hala nola kirolean, eskolan, hezkuntza erakunde ez-formaletan, prestakuntza ideologikoan edo erlijiosoan, aisialdiko enpreetan eta kaleko hezkuntzako programetan.

2. Urteko programaren barruan dauden jarduerak, Gazteriaren Foru Erakundeak sustatutako deialdietan dirulaguntza jasotzen dutenak.

4. Eskaerak aurkeztea

4.1. Eskaerak jarduera egin ostean eta hogeita egun naturaleko epean aurkeztu beharko dira, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Eskaerak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu beharko dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa (<https://e-s.araba.eus>); horretarako, erakunde eskatzaileek aldeztu aurretik ziurtagiri digitala izan beharko dute (erakundearen ordezkariaren ziurtagiria). Egoitza elektronikoa bidez aurkezten ez diren eskaerak kanpoan geratuko dira.

Egoitza Elektronikora sartzeko bideak zeintzuk diren eta entitate ziurtatzaile batek jaulkitako ziurtagiri elektronikoa non eskatu behar den jakiteko, jo atal honetara: <https://egoitza.araba.eus/nire-karpeta/eu/login?redirect=%2Fes%2Flogin>.

4.2. Eskaerekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

A. Jardueraren memoria:

a) Helburuak.

b) Plangintza eta garapena.

c) Parte hartzaileen, begiraleen eta zuzendariaren zerrenda, izen-abizenak adierazita.

d) Berariaz zehaztu beharko dira emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzearen gauzatu diren jarduerak eta helburuak.

e) Zein hizkuntzatan gauzatu den.

f) Jarduera egin dela egiaztatzen duen beste edozein dokumentu:

- Jardueren dokumentazio grafikoa.
- Aterpetxearen erreserba (hala badagokio).
- Udalaren baimena (hala badagokio).
- Landaren baimena (hala badagokio).

B. Gastuen eta diru sarreren balantzea.

Beste erakunde edo entitate publiko edo pribatu batzuei eskatutako laguntzak eta ekarpen propioak berariaz adieraziz.

Gazteriaren Foru Erakundeak balantzea aurkezteko eredu bat emango du.

C. Indarrean dagoen erantzukizun zibileko aseguruaren eta boluntarioentzako istripuen aseguruaren ordainagiria.

Istripu aseguruaren baldintzak Eusko Jaurlaritzako boluntarioen erroldan inskribatzeko eskatzen direnak izango dira.

Aseguru polizan parte hartzaileen kopurua agertzen ez bada, parte hartzaileen zerrenda ere aurkeztuko da, izen-abizenak eta adina adierazita.

Bi kasuetan, ordainagiriarekin batera poliza aurkeztu beharko da baldintzak aldatzen badira, konpainia aldatzen bada eta abar.

D. Planoa.

Kanpamentuaren edo auzolandegiaren kokapenaren plano eta deskribapena.

E. Tituluak.

Jardueraren aisialdiko zuzendari eta begirale tituluak, edo baliokideak.

F. Baimenak.

Dagokion administrazioari eman beharko zaio EAETik kanpo egindako jardueren berri. Jakinarazpen hori ezinbesteko baldintza da, eta, beraz, horren egiaztagiria aurkeztu beharko da, eta, hala badagokio, administrazioaren erantzuna. Halakorik ezean, udalaren baimena, aterpe erreserba, landaren kontratua edo jardueraren ofizialtasuna egiaztatzen duen beste edozein dokumentu aurkeztuko da.

G. Soldatapeko langile propioak.

Soldatapeko langileen zerrenda, honako zehaztapen hauekin: langile bakoitzaren lanpostua, ordutegia, kontratuaren hasiera-amaiera data, arduraldia eta horren guztiaren kostu ekonomikoa.

H. Laguntza eskatzen den lehen aldia bada edo datuak aldatu badira:

Erakundearen estatutuak, eta deialdi honen egunean legez eratuta eta elkarte eta kasuan kasuko entitateen erregistroan inskribatuta dagoela frogatzen duten agiriak eta IFZ. Erakundeek Gazteriaren Foru Erakundearen lehendik aurkeztuta badituzte, ez dute zertan berriro aurkeztu, salbu eta geroago aldaketaren bat egin badute.

Egoitza soziala beste lurralde batean duten baina Araban ordezkaritza duten entitateek agiri bidez egiaztatu beharko dute egoera hori, eta nahikoa izango da behin bakarrik aurkeztea, salbu eta ondoren aldaketaren bat egiten bada. Halaber, egoitza sozialari dagokion zerga ogasunean zerga betebeharrak egunean dituztela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

Entitate eskatzaileak soldatapeko langilerik badu, egiaztatu beharko du zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela eta ez diotela ezarri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan jasotako debekuren bat. Horretarako, gai horietan eskumena duten erakundeek egindako egiaztagiria aurkeztu behar ditu. Dirulaguntza 800,00 euro baino gutxiagokoa bada, ordeza, ez ditu aipatutakoak egiaztatu beharko, bat etorritik 58/2004 Foru Dekretuak xedatutakoarekin. Zerga betebeharrei dagokienez, nahikoa izango da egunean daudela adieraztea, eta Foru Aldundiaren zeregina izango da egiaztagiria egitea, Foru Ogasunaren bidez.

Dirulaguntzak eskuratzeko eskaerak aurkezteak esan nahi du oinarri orokorretan eta deialdi honetan ezarritakoa formalki eta berariaz onartzen dela.

5. Aurrekontu baliabideak eta dirulaguntzaren zenbatekoa

Hirurogei mila (60.000,00) euro bideratuko dira, Gazteriaren Foru Erakundearen 2026ko ekitaldirako gastuen aurrekontuko 71100. G/232751/48100752 partidari egozteko.

Deialdiari, gehienez, hamar mila euroko kopuru gehigarri bat erantsi ahal izango zaio, baldin eta aurrekontu krediturik badago. Gehieneko zenbatekoa handitzeko ebazpena ALHAOn argitaratuko da. Dena den, horrek ez du esan nahi beste eskaera batzuk aurkezteko epea irekitzen denik edo ebazteko beste epe bati hasiera ematen zaionik.

Aurrekontu zuzkidura hori oinarri hartuta, deialdiaren baldintzak betetzen dituzten elkarteek diru kopuru bat emango zaie pertsonako eta eguneko, honako hauek kontuan hartuta:

1. Parte hartu duten neska-mutilen guztizko kopurua.

2. Begirale kopurua. Begirale bat izan beharko da hamar parte hartzaileko. Zatikia 5 edo handiagoa bada, begirale bat gehiago izan beharko da, bertaratutako begiraleen kopurua txikiagoa denean izan ezik.

3. Kasu guztietan, zuzendari bat 100 partaideko tarte bakoitzeko (112/2026 Dekretua).

4. Jardueraren iraupen egunen kopurua (egun bat muntaketarako eta beste bat jasotzeko, aire zabaleko kanpaketen kasuan)

Dirulaguntzaren kalkulua:

1. Eskaera bakoitzean, parte hartzaileen kopurua (neska-mutilak, begiraleak eta zuzendariak) txanda bakoitzeko jardueraren iraupen egunekin biderkatuko da (p).

p kalkulua aldatu egingo da honako kasu hauetan:

a) Udaleku irekietako parte hartzaileek gaua bertan ematen ez dutenez, pertsona eta egun bakoitzeko kalkulatzen den zenbatekoaren ehuneko 40ko dirulaguntza jaso ahal izango dute.

b) Kanpamentuak eta martxa ibiltariak antolatzen dituzten entitateek pertsona eta egun bakoitzeko kalkulatzen den zenbatekoaren ehuneko 20 gehiago emango zaie.

Ondoren, eskaera guztiei dagokien datu hori batuko da (Σp).

2. Aurrekontu partidaren zenbateko osoa (T) aurreko baturaren artean zatitzen da, parte hartzaile bakoitzeko eta eguneko balio ekonomikoa lortzeko ($V=T/\Sigma p$)

3. Dirulaguntza kalkulatzeko, eskaera bakoitzean "p" balioa bider "V" balioa egingo da.

Zenbateko horrek gehi gainerako diru sarrerek ezin dute gainditu balantzean adierazitako defizita.

Aurrekontu zuzkidura agortzeko behar adina banaketa egingo dira.

Ikuskapenik egin bada, dirulaguntza kalkulatzeko erabiliko diren datuak kanpamentura, udalekura, martxa ibiltarira edo auzolandegira egindako bisitaren txostenean agertzen direnak izango dira.

Ez dute dirulaguntzarik jasoko balioetsi eta gero 200,00 eurotara heltzen ez diren eskaerak.

Dirulaguntza eskatzen den txanda edo jarduera bakoitzeko 5.000,00 euro jasoko dira gehienez.

6. Balorazio eta ebazpen batzordea

a) Dirulaguntzen emakida arautzen duten oinarri orokorretan adierazitakoaren arabera osatutako balorazio batzordeak aztertuko ditu eskaerak.

b) Aurkeztutako eskaerak deialdian finkatutako irizpideen arabera alderatu ondoren, balorazio batzordeak esleipen proposamenaren txostena egingo du.

c) Eskatzaileak ez du entzunaldiko izapiderik izango, eskatzaileak aurkeztutako gertaerak eta agiriak besterik ez baitira aintzat hartuko ebazpenena ematean.

d) Gazteriaren Foru Erakundea erakunde autonomoaren egitura eta funtzionamendu arautegia aldatzen duen Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 8ko 26/2010 Foru Dekretuaren 16. artikuluan ezarritakoaren arabera Gazteriaren Foru Erakundearen gastuak baimendu, xedatu eta antolatze eskumena duen organoak emango du ebazpena, eskabidea onartzeko edo ukatzeko, gehienez ere sei hilabeteko epean, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

e) Dirulaguntza emateko edo ukatzeko ebazpena eskatzaileei jakinaraziko zaie, eskaeran adierazitako egoitzan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 42. artikuluan xedatutako moduetan.

f) Ebazpen horren aurka, zeinak administrazio bidea amaituko baitu, nahi izanez gero beraztertzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman zuen organoari berari edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango da ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta. Lehena aurkezteko hilabete izango da eta bigarrena aurkezteko, berriz, bi hilabete.

7. Dirulaguntza ordaintzea

Dirulaguntza ordainketa bakarrean ordainduko da, dirulaguntza emateko ebazpena eman ondoren.

8. Egiaptapen jarduketak

Gazteriaren Foru Erakundeak, jardueraren gauzatzeari buruzko laginketa tekniken bidez, parte hartzaileen, begiraleen eta abarren kopurua egiaptatu ahal izango du. Horretarako, egokitutako jotzen dituen gastuen egiaptagiriak aurkezteko eskatuko du, hasieran horiek aurkeztea beharrezkoa izan ez arren.

9. Dirulaguntzen bateraezintasuna

Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 18. artikuluan ezarritakoaren arabera, dirulaguntzen zenbatekoa ezingo da izan, inola ere, bakarka hartuta edo beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatuz gero, edo diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen duten beste ekarpen batzuk lortuz gero, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahalko da.

10. Publizitatea

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko irailaren 18a

Gazteriaren Foru Institutuko zuzendari kudeatzailea

JUAN JOSÉ ROJO BAZÁN